

NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO EKOIZPENA

Gaitasun orokorrak

Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuak eta azpiproduktuak lortzea, kalitate eta errentagarritasun irizpideen arabera; instalazioak eta ekipoak jartzeko eta zaintzeko lanak egitea; eta ingurumenaren babesari, laneko arriskuen prebentzioari, animalien ongizateari eta elikagaien segurtasunari buruzko legeria aplikatzea.



Heziketa zikloaren helburu orokorrak

1. Datu klimatiko, edafologiko eta topografikoak eta eremuko ur baliabideei buruzko datuak interpretatzea eta prozesatzea, eta datu horiek landareengan duten eragina balioztatzea, zer labore mota ezarri erabakitzeko.
2. Makinak eta tresnak kontrolatzeko elementuak ezagutzea, dagozkien funtzioekin lotzea eta erabiltzen jakitea.
3. Nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioak muntatu eta zaintze aldera, dokumentazioa interpretatzea eta muntaketa eta mantentze-lanetako teknikak aplikatzea; hori guztia espezifikazioak irizpide teknikoaren arabera aztertuta.
4. Lanak nekazaritza jardunbide egokien arabera egitea eta tresnen aukeraketa eta erregulazioa justifikatzea, lurra prestatze aldera.
5. Haziak ereiteko eta landareak aldatzeko prozedurak gauzatzea eta material begetala ezartzeko bitarteko teknikoak deskribatzea.
6. Ureztaketa sistema maneiatze aldera, laboreen ur premia aztertzea eta kalkulatzea eta ezaugarri edafiko, klimatiko eta begetatiboak identifikatzea.
7. Laborantzako teknikak aplikatzea eta tresnak, makinak eta ekipoak ezagutzea eta aukeratzea, lurra lantze aldera.
8. Laginketa metodoak deskribatzea eta erabiltzea, eta zenbaketa prozedurak identifikatzea, laboreetako agente onuragarri eta kaltegarriak zenbatzeko.
9. Tratamendu fitosanitarioen prozesua deskribatzea, dokumentazio teknikoaz aztertzea eta tratamendua prestatzeko eta aplikatzeko tresneria aukeratzea.

10. Produktuak eta azpiproduktuak biltze, egokitze eta biltegitratze aldera, biltzeko eta biltegitratzeko teknikak aplikatzea, parametro teknikoak neurtzea eta azken produktuaren kalitatean daukaten garrantzia justifikatzea.
11. Inguruneko belar, zuhaixka eta zuhaitz bitartekoak aztertzea eta inbentariatzea, eta elikagai gisa artzaintzarako duten balioa kalkulatzeko.
12. Ganadua maneiatze aldera, ekoizpen prozesuak bereiztea eta errentagarritasuna, kalitatea, trazabilitatea eta animalien ongizatea bermatzen duten abeltzaintza teknikak identifikatzea.
13. Erlauntzak deskribatzea eta maneiatzea eta horretarako egin beharreko lanak eta baliatu beharreko teknikak aztertzea, erleen produktuak lortze aldera.
14. Kalitatearen, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumenaren arloko prozedurak aztertzea eta deskribatzea, eta, arau estandarizatuak betetze aldera, kasu bakoitzean nola jardungo den adieraztea.
15. Jardueraren teknologia, antolamendu, ekonomia eta lan arloko aldaketak identifikatzea eta aldaketa horiek lan arloan duten eragina aztertzea, berritzeko gogoari eusteko.
16. Eremuko errealitate sozioekonomikoak eskaintzen dituen aukerak identifikatzea eta arrakasta izateko norberaren eta besteen aukerak aztertzea, ekiteko eta berritzeko gogoari eusteko beti.
17. Ikasteko aukerak eta aukera horiek lan munduarekin duten lotura identifikatzea eta balioestea, eta, horretarako, merkatuko eskaintzak eta eskariak aztertzea, eguneratzeko eta berritzeko gogoari eusteko.
18. Negozio aukerak antzematea eta merkatuko eskariak identifikatzea eta aztertzea, enpresa txiki bat sortzeko eta gestionatzeko.
19. Gizarteko agente aktibo gisa dauzkagun eskubideak eta betebeharrak aintzatestea eta gizarte eta lan baldintzak arautzen dituen legeria aztertzea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

Moduluak:

LANBIDE MODULUA	Orduak	Kurtsoa
Agronomiaren oinarriak	198	1º
Zootekniaren oinarriak	132	1º
Laboreak ezartzea	132	1º
Tailerra eta trakzio ekipoak	132	1º

Nekazaritzako azpiegiturak eta instalazioak	99	1º
Landare osasunaren printzipioak	99	1º
Nekazaritza ekoizpena	165	1º
Esnea, arrautzak eta bizitarako animaliak ekoiztea	147	2º
Haragia eta abeltzaintzako beste produktu batzuk ekoiztea	168	2º
Kontrol fitosanitarioa	147	2º
Ingeles teknikoa	33	1º
Lanerako prestakuntza eta orientazioa	105	2º
Enpresa eta ekimena	63	2º
Prestakuntza lantokian	380	2º
GUZTIRA	2.000	

1. Agronomiaren oinarriak

- Klima eta klimak laboreetan dauzkan eraginak bereiztea eta dagoen informazioa aztertzea.
- Lurzoru motak eta lurzoruaren ezaugarriak identifikatzea eta lortutako datuak analisiaren bidez interpretatzea.
- Lursailaren ezaugarri topografikoen oinarrizko adierazpena egitea eta erabilitako teknikak justifikatzea.
- Espezieen ur premia zehaztea, uraren, lurzoruaren eta landarearen arteko harremana aztertuz.
- Gertuko ekosistemen ezaugarriak ezagutzea, harreman biotikoak aztertuz.
- Landare espezieak identifikatzea, irizpide taxonomikoen arabera.
- Ongarriak bereiztea eta nola erabili behar diren jakitea.

2. Zootekniaren oinarriak

- Abeltzaintzarako interesgarriak diren ugaztun eta hegazti espezieak identifikatzea eta espezie horien kanpoko ezaugarri morfologikoak eta ugaltzeko ahalmena deskribatzea.
- Aziendaren elikadura eta nutrizio premiak zehaztea eta premia horiek asetzeko anoak kalkulatzea, azienta motaren eta azientaren ezaugarrien arabera.
- Animalien ugalketa deskribatzea, kontuan hartuta oinarri biologikoak eta teknikak.
- Animalien patologia arruntenak eta patologia horien eraginak sailkatzea, eta gaixotasun kontzeptua eta gaixotasunen jatorriak aztertzea.
- Abeltzaintza instalazioak bereiztea eta ugalketa fasearekin eta espeziearekin lotzea.
- Animalia produktuak identifikatzea eta produktu horien ezaugarriak eta ekoizpenaren oinarri fisiologikoak deskribatzea.

3. Laboreak ezartzea

- Nekazaritza ustiategiaren ekoizpenaren nondik norakoa zehaztea, dauden baliabideak eta merkatuko eskaria identifikatu ondoren.
- Laboreak aukeratzea, ustiategiko ekoizpen helburuen arabera.

- Lurzorurik gabeko laboreak jartzeko lanak egitea eta hidroponia teknikak aplikatzea.
- Lurra ohiko nekazaritzarako moldatzeko lanak egitea, haziak ereiteko eta landareak landatzeko eta birlandatzeko, eta, horretarako, laborantza teknikak aztertzea eta aplikatzea.
- Material begetala ezartzea, hobetutako landare eta hazien erabilera justifikatzea eta nekazaritza modernoko teknikak aplikatzea.
- Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak betetzea, arriskuak identifikatzea eta arrisku horiek prebenitzeko tresnak eta neurriak jartzea.

4. Tailerra eta trakzio ekipoak

- Ustiatetikiko tailerra antolatzea eta tresnen eta ekipoen kokapena justifikatzea.
- Traktorea eta trakzio ekipoak erabiltzea eta dauzkaten funtzionaltasunak eta erabilerak interpretatzea.
- Traktorea eta trakzio ekipoak zaintzeko lanak egitea eta mantentze-lanen protokoloak eta fitxak interpretatzea.
- Oinarrizko soldadura eta mekanizazio lanak egitea eta erabilitako materialak eta metodoak justifikatzea.
- Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak betetzea, arriskuak identifikatzea eta arrisku horiek prebenitzeko tresnak eta neurriak jartzea.

5. Nekazaritzako azpiegiturak eta instalazioak

- Nekazaritza azpiegiturak instalatzea eta zaintzea, eta ezaugarriak eta muntatzeko teknikak deskribatzea.
- Ureztaketa instalazioak muntatzea eta instalazioaren elementuak eta muntatzeko teknikak identifikatzea.
- Babes eta behartze sistemak instalatzea eta sistema horiek ingurumeneko eta laboreko faktoreekin lotzea.
- Nekazaritza instalazioak zaintzea eta, horretarako, instalazioak txukun eta garbi edukitzeko protokoloak interpretatzea.

- Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak betetzea, arriskuak identifikatzea eta arrisku horiek prebenitzeko tresnak eta neurriak jartzea.

6. Landare osasunaren printzipioak

- Landaretza espontaneo baztergarria bereiztea eta eremuan dauden espezieak deskribatzea.
- Landareentzako mesedegarria eta kaltegarria den fauna zehaztea eta fauna horren ezaugarri biologikoek landareengan duten eragina aztertzea.
- Landareentzako agente mesedegarriak eta gaixotasun eta kalteak eragiten dituzten agenteak zehaztea eta agente horien ezaugarriak deskribatzea.
- Landareen osasun egoera zehaztea eta, horretarako, ezarritako protokoloari jarraiki jasotako informazioa balioztatzea.
- Landareak babesteko metodoak bereiztea eta metodo horiek landareen osasunean duten eragina balioztatzea.

7. Nekazaritza ekoizpena

- Laboreak ureztatzeko lanak egitea eta behar den uraren araberako ureztaketa sistema erabiltzea.
- Laboreak ongarritzea eta horretarako teknikak eta prozedurak aztertzea.
- Lurra lantzea, labore motaren arabera eta dagozkion tekniken bitartez.
- Uzta biltzea, manipulatzeko eta moldatzea, eta nekazaritza modernoko teknikak eta metodoak justifikatzea.
- Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak betetzea, arriskuak identifikatzea eta arrisku horiek prebenitzeko tresnak eta neurriak jartzea.

8. Esnea, arrautzak eta bizitarako animaliak ekoiztea

- Animaliak ugaltzeko aukeratzea eta prestatzea, metodo eta teknika jakin batzuk aplikatuz.
- Araldia, estaltzea eta ernaldia kontrolatzeko lanak egitea, espezie bakoitzaren ezaugarrien arabera.

- Erditze aurreko eta ondoko lehenbiziko asteetan eta hazkuntza aldi ama eta umeak maneiatzea, ezarritako protokoloen arabera, ahalik eta animalia gehienek biziraun dezaten.
- Jezte lanak egitea, ekipoak eta animaliak kontrolatzea eta ezarritako protokoloak betetzea, kalitatezko esnea lortzeko eta errapeari osasuntsu eusteko.
- Arrautzak eta txitak ekoizteko behar diren lanak egitea, espezifikazio teknikoen eta errentagarritasun eta kalitate irizpideen arabera.

9. Haragia eta abeltzaintzako beste produktu batzuk ekoiztea

- Animaliak hartzeko eta bidaltzeko lanak egitea, ezarritako arauak eta protokoloak interpretatzea eta animalien osasuna eta ongizatea bermatzea.
- Ganadua elikatzeke lanak egitea, espezieen, ekoizpen fasearen eta ustiaketa sistemaren araberrako bitarteko eta metodoak baliatuz.
- Aurrerakoak hazteko eta gizontzeko prozesuak aurrera eramatea, aurrez zehaztutako irizpide eta protokoloei jarraiki.
- Ganadua bazkatzeke antolatzea eta dagoen bazka modu eramangarrian baliatzea.
- Erlauntzeko lanak egitea, ezta eta erlearen beste produktu batzuk ekoizteke, eta, horretarako, teknika eta ekoizpen bitarteko intentsiboak aplikatzea.
- Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak betetzea, arriskuak identifikatzea eta arrisku horiek prebenitzeko tresnak eta neurriak jartzea.

10. Kontrol fitosanitarioa

- Aplikatu behar diren produktu kimiko fitosanitarioak zehaztea, ezaugarri teknikoak aztertu ondoren.
- Produktu kimiko fitosanitarioak biltegitratzea eta manipulatztea, eta, horretarako, arauak eta ezarritako protokoloak interpretatzea.
- Metodo fisiko, biologiko edota bioteknikoak aplikatzea eta agindutako teknikak deskribatzea eta baliatzea.
- Produktu kimiko fitosanitarioak prestatzea, ezarritako protokoloaren arabera.
- Produktu kimiko fitosanitarioak aplikatzea eta horretarako behar diren makinak eta ekipoak aukeratzea.

- Produktu kimiko fitosanitarioak erabiltzeak dauzkan arriskuak ezagutzea, osaeraren eta ekintza mekanismoen arabera, eta jendearengan eta ingurumenean dauzkaten eragin kaltegarriak aztertzea.
- Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak betetzea, arriskuak identifikatzea eta arrisku horiek prebenitzeko tresnak eta neurriak jartzea.

11. Ingeles teknikoa

- Tituluari dagokion lanbidearen eta eskaintzen den produktu edo zerbitzuaren arloko ahozko informazioa interpretatzea eta erabiltzea; produktu eta zerbitzu horien ezaugarriak eta propietateak eta enpresa motak eta enpresa horien kokapena identifikatzea eta deskribatzea.
- Sektoreko idazkiak eta nazioarteko merkataritza transakzioetarako dokumentuak interpretatzea eta betetzea: ezaugarrien eta funtzionamenduaren eskuliburua, eskari orria, harrera edo entrega orria, fakturak eta erreklamazioak, besteak beste.
- Komunikazio egoeretan jarrera eta jokabide profesionalak identifikatzea eta aplikatzea, eta beste herrialdeetako protokolo arauak eta ohiturak errespetatzea.

12. Lanerako prestakuntza eta orientazioa

- Enplegu abaguneak aukeratzea eta lanean hasteko eta ikasten jarraitzeko aukerak identifikatzea.
- Taldean lan egiteko estrategiak aplikatzea eta estrategia horiek helburuak lortzeko eraginkorrak diren ala ez balioztatzea.
- Lan harremanetako eskubideak baliatzea eta eginbeharrak betetzea, eta eskubide eta eginbehar horiek lan kontratuetan aintzatestea.
- Gizarte Segurantzako sistemak estaltzen dituen gertakarien aurrean zer babes eskaintzen duen zehaztea eta prestazio motak identifikatzea.
- Jardueraren arriskuak ebaluatzea, lan baldintzak eta lantokiko arrisku faktoreak aztertuz.
- Enpresa txiki batean arriskuak prebenitzeko plana egiten parte hartzea eta inplikaturako agente guztien erantzukizuna identifikatzea.

- Prebentzio eta babes neurriak aplikatzea eta tituluari dagokion lanbidearen arrisku egoerak aztertzea.

13. Enpresa eta ekimena

- Ekiteko ahalmena aintzatestea eta balioestea, eta lanpostu eta enpresa jardueretako betekizunak aztertzea.
- Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehaztea, enpresa ideia aukeratzea eta bideragarritasuna aztertzea, merkatu azterlan bat eginez; gainera, jarduera eremuan enpresa horrek izango duen eragina balioestea eta balio etikoak aplikatzea.
- Enpresa plana egiteko eta abian jartzeko eta enpresa eratzeko lanak egitea, izaera juridikoa aukeratzea eta lege betekizunak identifikatzea.
- ETE baten administrazio eta finantza gestiorako lanak egitea eta, horretarako, kontularitza eta zerga betekizun nagusiak identifikatzea eta dokumentazioa betetzea.

14. Prestakuntza lantokian

- Nekazaritza enpresen egitura eta antolamendua identifikatzea eta egitura eta antolamendu horiek enpresak eskaintzen dituen produktuen ekoizpenarekin eta merkaturatzearekin lotzea.
- Ohitura etikoak eta lanerako ohiturak aplikatzea eta jarduera profesionala lanpostuaren ezaugarrien eta enpresak ezarritako prozeduren arabera gauzatzea.
- Laboreak ezartzeko lanak egitea, lurra prestatzea eta ustiategiko ekipoak eta makinak erabiltzea, ezarritako jarraibideen arabera.
- Laboreak ekoizteko lanak egitea, erabiltzen diren teknikak identifikatzea eta dauden bitarteko eta instalazioak baliatzea.
- Kontrol fitosanitarioko teknikak aplikatzea, eta metodoak eta ekipoak ezarritako protokoloen arabera erabiltzea.
- Azienda maneiatzea eta, lan horretan, aurrez ezarritako elikadura, ekoizpen, ugalketa eta osasun arloko prozedura eta teknikak baliatzea.
- Behartze sistemak eta nekazaritza eta abeltzaintzako azpiegitura eta instalazioak muntatzea eta zaintzea eta, horretarako, jarraibideak eta dokumentazio teknikoa interpretatzea.

Lanpostuak

- Laborantzako eta abeltzaintzako besteren konturako langile gaitua.
- Laborantzako eta abeltzaintzako norberaren konturako langile gaitua.
- Nekazaria.
- Baratzezaina.
- Frutazaina.
- Lorezaina.
- Ganadu hazlea.
- Hegatizaina.
- Erlezaina.
- Esne ekoizlea.
- Arrautza ekoizlea.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako makinen operadorea.